



## **2016KO OTSAILAREN SEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko otsailaren bostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Aktan adieraziko da Ane Irastortza Izagirre zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko urtarrilaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Ane Irastortza Izagirre zinegotzia bertaratu da.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira.

Aran zinegotziak (EH Bildu), hainbat fakturei buruz, gastu horien egokitasuna edo beharrezkotasunari buruzko bere zalantzak azaldu ondoren, faktura hauen onarpenaren aurrean abstenitu egingo direla esaten du.

Gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu batzarrak, aldeko 3 boto, aurkako botorik gabe eta bi abstentziaz (EH Bildu) 2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 111 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HIRU MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (83.333,79 €)takoa eta 2016ko ekitaldiari dagokion 4 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA ZORTZI MILA EHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO TA BOST ZENTIMO (28.188,05 €) takoa onartzea erabakitzen du.

### **III.- POSTA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.-**

Diputatuen Kontseiluaren 2015eko uztailaren 28ko akordioan jasotako eskuorde-tzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2015eko urriaren 28ko foru aginduaren bitartez, SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A. (IFZ.: A83052407) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez X15019 zenbakiko espedientea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeko esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.



Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin araber, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2016ko urtarrilaren 14an emandako txostenaren araber, posta zerbitzua erabiltzeko beharra dela eta, proposatu du posta zerbitzuaren kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako posta zerbitzuaren erabilera zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko zortzi mila eta zortziehun (8.800 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A. (IFZ.: A83052407) enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak onartzen ditu:

**LEHENENGO.-** "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez posta zerbitzuaren esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X15019) SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS S.A. enpresari (IFZ.:A83052407) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Akordioaren oinarritzko atala da Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A. enpresak 2015eko irailaren 10eko datarekin aurkeztutako "I.2 eranskina, -xehetasun orria- eskaintza ekonomikoa", bere espedientean dagoena.

**BIGARREN.-** SDAD. ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, SA, N.I.F.: A83052407, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion 8.800 euroko gastua, 1 222.02.920.00 kontusailen kargura.

**HIRUGARREN.-** Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

#### IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

#### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 15-11-02 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea, 2016ko urtarrilaren 27an, egoitzan sartu delako.
- 15-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea, 2016ko urtarrilaren 29an, bizitzera beste herri batera joan delako.





Presoen familiartekoentzat garraio laguntza.-

- 12-13-03 zbk.dun esped.: bere senitarteko bat preso dagoenez, bidaietarako hilero 137,36 € ematea.

V.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRULAGUNTZAK .-

- Kontseiluari.- 2015eko abenduaren 19an, euskararen alde bideratutako ekintzen barruan Lazkaon izandako haur eta helduen korrika saioa dela eta, Kontseiluari bostehun euroko (500 €) diru laguntza emateko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, diru laguntza proposamena onartzea erabakitzen du.
- San Benito Ikastolari.- Mantentze lanak diruz laguntzeko San Benito Ikastolarekin izenpetuta dagoen hitzarmenaren barruan, eta San Benito Ikastolak aurkeztu duen egindako gastuen zuriaketa ikusi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, 2015eko aurrekontuan aurreikusitako diru laguntza onartzea erabakitzen du. Lehenengo zatia aurretik ordainduta dagoenez, orain bigarren zatia ordainduko zaio. Orain ordainduko zaion zatia 16.995 € da.

VI.- ETXEBIZITZA ETA EKONOMI JARDUERAKO DIRU LAGUNTZAK .-

- Eguberrietako erakusleihen lehiaketa.- 2015eko eguberrietako erakusleihen lehiaketan parte hartu zuten herritarren artean 7 bono zozketatu ziren, guztira 2.000 euro Lazkaoko dendetan gastatzeko. Bere espedientean jasota dago zein herritarri eman zitzaizkien bono horiek. Gero bono horiek herriko merkataritzak ekarriko dituzte udal txera eta udalak ordaindu egingo ditu. Une honetan 1.965 euroren pareko bonoak jasotzen dira Udaletxean.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, eguberrietako erakusleihen lehiaketarako proposatutako bi mila euroko (2.000 €) diru laguntza onartu egiten du. Ordainketa Lazkaoko merkatariei egingo zaie, hauek aurkezten dituzten bonoen arabera.

- Lazkaoko Merkataritza Elkarteari.- 2015. urtean merkataritza sustatzeko burututako jarduerengatik 2.243,09 €, eskualdeko dinamizatzailerak finkatzeko 1.100 € eta burututako jarduerengatik 1.143,09 € emateko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamen hauek onartu egiten ditu.

VII.- KIROLETAKO DIRU LAGUNTZAK.-

- Xabier Elizburu Imaz.- 2016ko otsailaren 6an egitekoa den Open Lazkao-Agauntza Arrantza Txapelketaren antolaketarako diru laguntza emateko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, aho batez, 700 € ematea onartzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-





LAZKAOKO UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hogeita zortzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

